



-ESKOLA KIROLAREN LURRALDE KONTSEILUAREN BILERAREN AKTA

2012ko maiatzaren 8ko 18:10ean, Kirol Etxeko Juan Muguerza aretoan, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren ohiko bilera izan da. Deialdiaren gai-zerrenda osatzen duten gaiak jorratu dituzte bertan.

Bertaratuak honakoak izan dira:

* Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik

- Asier Sarriegi, Kirol zuzendari nagusia, bileran buru izan dena.
- Carlos Alfonso, Kiroleko zerbitziburua.
- Imanol Fernández de Larrinoa, kirol teknikaria.
- Rosa M. Morcillo, Kirol Management S.L. enpresa, Gipuzkoako Kirol Kontseiluaren idazkaritza.

* Gipuzkoako udalen aldetik

- Ibai Saavedra, Pasaiako Udalekoa, Lezoko Udalaren ordezkari gisa.
- Beatriz Mena, Villabonako Udalekoa.
- Manolo Aierbe, Hernaniko Udalekoa.

* Kirol federazioen aldetik

- Pedro Echarri, Saskibaloiko Federaziokoa.
- Teresa Ortega, Gipuzkoako Judo Federaziokoa.

* Ikastetxeen aldetik

- Aitor Pérez, Errenteriako Orereta Ikastolakoa.
- Susana Santor, Arrasateko Herri Eskolakoa.
- Fernando Urien, Zarauzko Lizardi Institutukoa.
- Pako Urrestarazu, Ataungo Joxe Miel Barandiaran-ekoa.

Banatuak dokumentazioa (e-mail)

- . 2011ko azaroaren 22ko bileraren akta
- . 2012-2013ko jardura programaren zirriborroa
- . Gipuzkoako Eskola Kiroleko Programan berdintasun programa ezartzeko proiektua
- . Monitore ikastaroetako izen emate datuak
- . Eusko Jaurlaritzaren eskola kiroleko diziplina araubidearen zirriborrarako ekarpenak

Eskuan banatuak dokumentazioa

- . Eskola kiroleko datuen txostena 2011-2012
- . Kirol eskolen desglosea, 2011-2012 ikasturtea



1) 2011ko azaroaren 22ko bilkurako akta irakurtzea eta onartzea

Aldundiak aipamen bat egin du, bilkurakideak ados ote dauden une honetatik aurrera aktetako edukiak pisu txikiagokoak izatearekin. Denek baietz erantzun dute.

Aurreko bilkurako aktari dagokionez, Ibai Saavedrak esan du 3. puntuko azken apartatuan akats bat dagoela, eta agertu behar lukeela Allerruk ez zuela parte hartu; Imanol Fdez. de Larrinoak esan du zuzenduko dutela.

Akta onartu dute.

2) 2012-2013ko jarduera programaren zirriborroa

Aldundiak aipatu du aldaketa gutxi izan direla, eta hainbat federaziok egindako ekarpen berriak eman ditu aditzera; ekarpenak honakoak dira:

- Gipuzkoako Saskibaloia Federazioa: izen emateak ixteko epea irailaren 16ra aurreratzea eskatu du.
- Gipuzkoako Piraguismo Federazioa: kimu mailako hastapen ikastaroak hastea eskatu du.

Gipuzkoako Saskibaloia Federazioak egindako eskaerari dagokionez, Pako Urrestarazu eta Fernando Urienek esan dute ikastetxeei ezinezkoa zaiela irailaren 16rako taldeak osatuta edukitzea. Pedro Etxarrik erantzun du egutegiak berregin egin behar izaten dituztela, ikastetxeak serioak ez direlako eta taldeak zerrendatik kentzen dituztelako; horrelakorik gertatuko ez balitz, bere aldetik ez litzateke arazorik izango izen emate data irailaren 30ean mantentzeko.

Aipatu egin dute kirol eskoletako partaidetza datuei buruzko txostenetako edukia, 2011-2012 ikasturteari dagokiona, eta baita aurreko bileran -2011ko azaroan- banatutako eskola kiroleko programako jardueretako kirol kolektibo nagusietako partaidetza datuak ere.

Bestetik, azaldu dute arraunean hasteko jarduerak kimu mailara aurreratzea eskatu duela Orio A.E.k, eta onartu egin zaio, bakarrik aulki mugikorrean egiteko baldintza ezarrita.

3) Eskola kiroleko monitore ikastaroa

Aldundiak aipatu egin ditu hiru probintzietako, Bizkai, Araba eta Gipuzkoako, izen emate datuak, hizkuntza, sexu, adin eta entitatearen arabera bilduak, hiru lurraldeen arteko alderaketa egin eta dauden aldeak ikusi ahal izateko.



Izen emanda dauden gizonezkoak emakumezkoak baino askoz gehiago direnez, 2012-13 ikasturtean Gipuzkoan proposatzen dugu emakumeen izen emateari lehentasuna ematea, ikastaroan parekotasuna lortzearren.

4) *Eskola kiroleko mugikortasun iraunkorreko plana*

Aldundiak aipatu du ildo honetatik ez dela aurrerapen askorik izan. Mendi ibilaldi neurtuetarako bidaietan autobusak erabili dituzte elkarrekin Irun eta Zarautzen; Eibar eta Deban, aldiz, tren erabili zuten.

Azkenik, aipatu dute ezen, motel bada ere, pausoak egiten ari direla mugikortasun planari dagokionez.

5) *Eskola kiroleko berdintasun programa*

Jarraitu beharreko ereduak, ekintzak eta gomendioak aipatu dituzte, bidalitako dokumentazioan jasota baitaude.

Aldundiak aditzera eman du ezen jardueretako partaidetza datuen bilketan jada bereizten direla sexuak, eta komunikazioari dagokionez (jarduera programa eta bestelako idazkiak) testuak idaztean hizkuntza ez sexista, berdintasunezkoa, izateko irizpideak jarraitzen direla. Gauza bera egiten ari da irudien tratamenduari dagokionez ere.

Alabaina, eskola kiroleko programa garatzeko lanean murgilduta dauden beste eragile batzuen jardueran ikusi dira irizpide horiei segitzen ez dieten testu, irudi eta informazioak; horregatik, irizpideak zabaltzeko ekintzak egitea aurreikusten da.

Sari banaketa berdintasunezkoari dagokionez, era berean aurreikusten da jarduera protokolo bat erredaktatzea, federazio eta udaletara banatzeko.

Pedro Echarrrik galdetu du kontabilitatean femeninoa eta maskulinoa bereizi behar ote diren. Carlos Alfonsok erantzun dio ahalegina egin behar dela gastuak eta aurrekontuak banakatzeko, genero bakoitzera zenbat doan ebaluatu ahal izatearren. Teresa Ortégak aipatu du ezen Eusko Jaurlaritzatik jada eskatzen dutela bereizte hori, eta Pako Urrestarazuk aipatu du ez dela hain gauza konplikatua aurrekontua egiteko unean.

6) *Euskadiko errendimendu txapelketak – Euskadiko Jokoak*

Aditzera eman dute informazio hau jada aurreratu zela 2011ko azaroko bileran. Euskadiko Jokoak Eibarren egingo dira nagusiki, nahiz jardueretako batzuk Ermuan, Elgoibarren eta Zarautzen izango diren.

Azpimarratu behar piraguismoa desagertu egin dela programatik, zeren eta ikasturtean zehar badiren Gipuzkoako eta Bizkaiko eskolaumeen arteko lehiaketa batzuk.



Errendimenduan hasteko Euskadiko txapelketak, berriz, Euskadiko Jokoen antolaketa orokorraren barnean sartuko dira. Mutilen esku pilotako lehiaketak eta saskibalo lehiaketak maiatzaren 26 eta 27an eta ekainaren 2an izango dira Eibar eta Ermuan; mutilen futbola ekainaren 2 eta 3an izango da, Lezama, Zubieta eta Betoñun.

7) *Arartekoaren txostena eskola kirolari buruz*

Aldundiak aipatu duenez, Arartekoaren 6/2011 gomendio orokorrari buruzko txosten bat eman behar zaio Eusko Legebiltzarrari, ekaina baino lehen.

Aditzera eman dute entrenamenduetan abusuak eta gehiegizko presioa dakartzaten jarrerren inguruko kezka sortu dela. Zaila da tratatzen eta ebaluatzen, eta eskola eta klubetan ahalegina egin behar da entrenatzaile eta teknikarien jarrera egokitzeko, hain zuzen eskola kirolaren heziketa bokazioari ematearren lehentasuna.

Aldundiak gehitu du badirela ikuskaritza planak ere, baina gai konplexua dela, zaila baita tratu desegokia zer den definitzen. Eskola kirolari buruzko dekalogoak aipatu dituzte.

Beatriz Menak uste du interesgarria izan daitekeela gurasoekin bilerak egitea, horiei azaltzearren zein diren helburuak, eta zertarako apuntatzen dituzten haurrak eskola kirolean.

Pako Urrestarazuk aipatu du kexa handirik ez duela, baina eskola kirola kanpo zerbait balitz bezala ikusten dela, eskolatik kanpokotzat alegia, egiaz egin behar duten barne lan bat den arren.

Ibai Saavedrak tratu desegokirik ez izateko prebentzioa landu beharra aipatu du halaber.

Amaitzeko, Aldundiak aipatu du monitore ikastaroa, portaera desegokiak ote diren susmoa dagoen kasuetako ikuskapenak eta gurasoei zuzendutako kanpainak tresnak direla, erabili beharrekoak inolaz ere, eskola kirolean jarrera desegokiak errotik erazteko.

8) *Eskola kiroleko lehiaketetako diziplina erregelamendua*

Aldundiak aipatu egin du eskola kiroleko lehiaketetako diziplina araubideari buruzko arau zirriborroari egindako ekarpenen edukia.

Xedapenak orokorrak dira eta, beraz, garatu egin beharko lirateke, kirol modalitate desberdinetan aplikatu ahal izatera begira. Ideia baita Araba eta Bizkaiarekin batera egitea lan, erregelamendu garapenak hiru lurraldeetan berdinak izan daitezen.

9) *Eskola futbolari buruzko akordioen jarraipenerako batzordea*



Federazioak igorrita, futbol eskoletako normalizazio planaren zirriborro bat jaso da (27 puntu), eta negoziazio bat aurreikusten da, datorren ikasturtera begira akordio bat finkatzearen.

Aldundiak adierazi du prest dagoela 4 urterako akordio batera iristeko, baina horretarako futboleko klubek konpromisoa hartu behar dutela, adosten dena betetzeko.

10) Bestelakoak

Eskola kiroleko egituren eta klub batzuen arteko harremanen inguruko gaiak aipatu dituzte. Zarauzko kasu zehatza atera da, horretan maila bakoitzerako ezartzen den gutxieneko jardunaldi kopurua betetzen baita, finalerdi eta finalak ere jarrita, baina klubek ez dituzte arauak betetzen eta zentroek ez dituzte diru laguntzak jasotzen.

Aitor Pérezek eskatu du lehiaketa formatu berdinak egotea modalitate guztietan, eta Gipuzkoako Txapelketak jokatzeko datak murriztea.

Eta, aztertzeke beste gairik ez dagoenez, hasieran adierazitako eguneko 20:10ean amaitu da bilera.

Presidentea

Idazkaria

BORRADOR